

ATXIK BERRITUZ

Hilabete hunen hastapenean agertu da lehen aldikotz komunikabideetan Iparraldeko kristau multzo batek osatu Kolektibo hunen izena. Zer den Kolektibo hau, nork osatzen duen, zoin diren bere xedeak eta helburuak agertzera bermatuko naiz artikulu hunen bidez.

Azaroaren 7an hain xuxen komunikabideetara helarazi zuen « *Atxik Berrituz* » Kolektiboak bere lehen agiria, agiri nolabait fundatzailea, « Bakea Euskal Herrian » izenburuarekin.

Lehen lerroan berean agertzen du zer karietara plazaratzen duen agiria : « *Aiete-ko Konferentziaren urteburu kari...* », handietsiz Euskal Herrian bakea bideratzeko alde guzietarik egiten ari diren ahaleginak.

Berez, agiri hau bidean dagon bake prozesuaren alde engaiatzeko deia da, jakinik bakea « *herritargo osoaren ardura* » eta betekizuna izan behar dela. Baina deia gisa berezi batez luzatua da ez bakarrik kristaueri eta gure erlijio arduraduneri, bainan ere « *beste erlijionetako kide* » guzietari, argi izanik « *erlijio desberdinek beren ekarpen berezia egin dezaketela lurralde huntan bakea finkatzen laguntzeko.* »

Egia erran, agiria plazaratu aintzin, lehen urratsak bide hortarik emanak izan dira Baionako Sainte Croix auzoan zombait urte hautan biltzen diren erlijione desberdinetako jarraitzaileen artean. Bainan « fruitua ez da oraino ondua » sinadura amankomun batera heltzeko. Lanean segitu behar, deia beti zabalik atxikiz.

Azkenean, dei hau plazaratzeko ekimena hartu du kristau talde batek, gehienak laikoak izanik. Aspaldi huntan, molde batera edo bestera, Pastoralta lanetan dabiltzan « oinarriko » laikoak. Alabaina, kontua ez da sasi-Eliza bat sortzea edo « bazterretik » jokatzea, bainan bai gure bataiatu erantzunkizuna molde eraginkor, hausnarkor eta idekian betetzea, gauden tokian eta bizi dugun egoera konkretoan. « *Otoitza eta Ekintza* » izan daiteke Kolektibo hunen xedeak eta helburuak hobekienik agertuko lituzkeen leloa.

Zergatik eta nundik izen hori : « *Atxik Berrituz* » ? Dena aitortzeko, Gipuzkoan duela hiru bat urte sortu duten « *Eutsi Berrituz* » Kolektiboarekin haurridetasuna markatzeko. « Eutsi » gipuzkeraz edo « Atxik » lapurteraz gauza bera erran nahi du : **iraun**. Hunekin adierazten da gure eliztar nortasuna osoki gure gain hartzen dugula, Elizaren historian eta garapenean kokatzen girela, historia hori gure egiten dugula, alderdi on eta txar guzietan. Bainan aldi berean « **berrituz** » : barne-egitura berritzen lagunduz, ohiko ibil-moldeak eta erran-moldeak gaurko munduari doazkion moldeetara egokituz, elkarrizketa, idekitasuna, ardurakidetzeta bultzatuz, fundamentalismoa eta integrismoa baztertuz ; bainan ere gure burua berrituz, etengabe bihotz-berritzera eta arra-sortzera deituak baigira.

Eliza barneko dinamika hori bidean dago eta kanporatzen da « Chrétien du Parvis » edo « Conférence des Baptisés de France » bezalako mugimenduetan, edo, guri hurbilago, « Chrétien en mouvement » bezalako ekimenean. Orokorki, Batikanoko II. Kontzilioak markatu izpiritu berritzailearen bidetik.

« Beste mugimendu bat gehiago » pentsatuko dute zombaitek. Bai...(eta ez). Izatasun juridikorik ez izanik ere, garrantzizkoa iduritu zaiku duela urte bat abiatu bake prozesuaren dinamikan hats edo arnas berritu batez gure presentzia adieraztea. Nihilaz ere gizarte zibilak bultzatu ildotik aparte, bainan bai huni xertaturik egonez, sinergia osoan, protagonismorik bilatu gabe, bainan gure ekarpen berariazkoa ekarriz, umilki eta arta handiz. Baketzea, barkamendua, adiskidetzeta ez dira kristauen jabego hutsekoak, gain-gainetik hiri-bertuteak dira. Bainan guretzat goitasunezko gaiak izan behar dute. Eliza, « *gizakien arteko eta gizaki eta Jainkoaren arteko batasun tinkoaren ikur eta tresna* » (Lumen gentium I. 1) denaz geroz, bere gene kodean daruma bokazione adiskidetzaila. Hortan ez dugu hutsegin behar.

Beraz, gure lehen urrats konkretua azaroaren 10eko presoen, errefuxiatuen eta hauen familien aldeko manifestaldira deitzea izan den bezala, ondoko aste eta hilabeteetan (eta urteetan), pentsatu beharko dugu, gertakarien arabera, gure presentzia nola adierazi: barne-eztabaida haziz (bake, biktima, barkamendu, adiskidetzeta nozioak gure artean funtski aztertuz), hitz eta entzuketa guneak sortuz, hitzaldiak eta otoitzaldiak antolatuz... Hau da orai eta hemen kristaueri dagokigun

egitekoa.

P.S. : *Ekimen eta dei hunekin ados diren guziak deituak dira beren izena edo sinadura helaraztera*
« **atxik.berrituz@gmail.com** » helbidera.

Peio Ospital